



elgoibar ikastola

Elgoibar Ikastolako Kontseilu Errektoreak HH 0-1rako haurren onartze-arauak eta irizpideak onartzen dira 2011ko irailean.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2008ko martxoaren 6an argitaratu zuen martxoaren 4ko 35/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta erdi mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako herri ikastetxeetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura arautzen duena, eta, besteak beste, Haur Hezkuntzako Lehen zikloko ikasleak onartzeko prozeduraren araudia ezartzea du helburu.

Dekretu honek arautu gabeko gaietan, berriz, *Elgoibar Ikastolako Kontseilu Errektoreak* ezartzen ditu irizpideak eta jarraibideak.

Izena emateko epeak

Dagokion adin tartean plaza hutsak badaude:

HH 0 eta HH 1 urtean eskainitako plazarik balego izena emateko epea etengabe egongo da irekita.

- Izena emateko, hiru epe ezarri dira HH 0n:

- 1.- Maiatzean, HH 0 urtean irailean eta urrian hasiko diren haurrentzat.
- 2.- Irailean, HH 0 urtean azaroan, abenduan, urtarrilean eta otsailean hasiko diren haurrentzat.
- 3.- Urtarrilean, HH 0 urtean otsailean, martxoan, apirilean, maiatzean eta ekainean hasiko diren haurrentzat.

- Izena emateko, epea HH 1an:

Maiatzean, HH 1 urtean irailean hasiko diren haurrentzat.

Izena emateko ezarritako epeak bete egingo dira. Behin plazak bete eta hurrenkera irizpideak aplikatu ondoren, gainerako inskripzioek itxaron zerrenda osatuko dute. Hori izango delarik ikasturtean zehar gertatzen diren hutsuneak betetzeko erreferentzia. Bestalde, itxaron zerrendan jasotakoek lehentasuna izango dute hurrengo matrikula epean izena emateko orduan.

Eskaerak ezarritako epean egin beharko dira. Eskaerak egiteko, inskripzio orria aurkeztu beharko da.

Eskariak aurkezteko epean, eskatzaile bakoitzak haurtzaindegi bakarrean egin ahal izango du eskaera. Eskariak aurkezteko epe berean haurtzaindegi batean baino gehiagotan eskaera eginez gero, eskatzaileak aukera-eskubideak galduko ditu.

Lehen aukera gisa eskatutako haurtzaindegian aurkeztuko da eskaria.

Ezarritako epea iritsi baino lehen ez da eskaririk onartuko. Eskari-inprimakiarekin batera, atxikita aurkeztuko dira baremoan aintzat hartutako egoerak egiaztatzen dituzten dokumentuak. Eskariak onartzeko epea itxi eta gero, ezin izango da dokumentu gehiago aurkeztu.

Atal edo azpiatalen batean puntuak lortzeko behar den dokumentuetako bat aurkezten ez bada, batere punturik gabe geldituko da atal edo azpiatal hori; dena den, horrek ez du eskaria baliogabetzen, ezta beste atal edo azpiataletan lortutako puntuak ere.

Onartzeko irizpide orokorrak

- 0 urteko gelentzat: 32 plaza.

- Urte leko gelentzat: 52 plaza.

1.-HH0n, goiz eta arratsaldez matrikulatutako haur kopurua 52koa baino gehiagokoa ezingo da izan.

2.-HH1en, goiz eta arratsaldez matrikulatutako haur kopurua 72koa baino gehiagokoa ezingo da izan.

3.-HH 0-1 urte bateko gela batean inskribatutako haur kopurua gela horretako gehienezko plaza kopuruaren %50a baino txikiagoa bada, HH 0-1 urte gela horren irekiera eta baldintzak Elgoibar Ikastolak aztertuko ditu (irekiera ordutegia ...).

4.-Aurreko ikasturtean matrikulatuta dauden haurrek ez dute berriz ere eskaria egin behar, beren plaza automatikoki bermatzen baitzaie izena emateko maiatzeko epearen aurretik hala eskatu duten familiei.

5.- Oraindik jaio ez direnak ezin izango dira inskribatu.

6.- Izena ematean eta haurrak noiz hasiko diren finkatzean, derrigorrezkoa izango da HH 0-1 urtean hastean haurrek 16 aste beteta izatea.

7.- Urtarrileko izen-ematearen eperako jaio ez diren haurrak onartu ahal izango dira, baldin eta adin horretako haurrentzat plazarik badago.

8.- Bajan emandako haurrek HH 0-1 urte haurtzaindegian berriro izena eman nahi badute, 6 hilabete edo gutxiagoko epean, izen-ematea onartuko zaie, baldin eta banku transferentziaren bidez hilabete horien ordainketa egiten badute. Salbuespenak *Kontseilu Errektoreak* aztertuko ditu. Bajak ondorio ekonomiko eta antolakuntzakoak izango ditu baja egunaren hurrengo hilabetetik aurrera.

9.- Kuotak 12 hilabetetan zehar banatuko dira.

10.- Izena eman eta behin onartua izaten denean, matrikula gisara, hileko bati dagokiona ordainduko da, izen-emateko orrian jarritako datan hasiz gero, lehenengo hilabetea kobratutzat emango da.

11.- Zehaztutako dataren lehenengo hilabetean hasi ez den haurra bigarren hilabetea bukatu aurretik hasi beharko da, eta bigarren hilabetea ere osorik kobratuko zaiolarik. . Hortik aurrera eta haurra haurtzaindegian hasi gabe jarraitzeko asmoa duen familiak bere tokia galduko luke, eta beste bati sartzeko aukera emango lioke. Kasu hauetan ez da itzuliko matrikula kontzeptuan ordaindutakoa.

Eskariak barematzeko irizpideak

- Eskatzailea ez den adin txikiko seme-alaba bakoitzarengatik: 0,25 puntu (atal honetako gehienezko puntuazioa: 1 puntu).

- Eskatutako HH 0-1 urteren udalerrian izatea haurraren bizilekua: 5 puntu.

- Eskatutako HH 0-1 urteren udalerrian izatea aitaren, amaren edo lege ordezkariaren lantokia: 2 puntu (Puntu horiek bateraezinak dira haurraren aita, ama edo lege-tutorea eskatutako HH 0-1 urtean lan egiteagatik ematen diren puntuekin).

- Elgoibar Ikastolan bertan anaia-arreba bat edo gehiagorekin batera egotea: 9 puntu.

- Aitak, amak edo legezko tutoreak Elgoibar Ikastolan lan egitea: 7 puntu.

Atal honetan, adopzio aurreko egoeran nahiz harrera-egoeran dauden adingabeak ere Elgoibar Ikastolan matrikulatutako anaia-arrebatzat hartuko dira.

Atal honetako puntuazioa emateko, beharrezkoa izango da eskaria egin duen haurra Elgoibar Ikastolan anaia-arrebekin batera egotea edo izen-emate epean ama, aita edo legezko tutoreak Elgoibar Ikastolan lan egitea.

- Maila orokorreko familia ugari kidea izateagatik: puntu 1.

- Maila bereziko familia ugari kidea izateagatik: 1,5 puntu.

Familia ugaria dela egiaztatzeko, estatuko edozein autonomia-erkidegok emandako agiri ofiziala aurkeztu behar da.

Minusbaliotasunarengatik (Atal honetako gehienezko puntuazioa: 2 puntu)

- Haur eskatzailearena: 2 puntu.

- Haren amarena, aitarena, legezko tutorearena edo anaia-arrebaren batena: puntu 1.

Atal honi dagozkion puntuak emateko, aipatutako pertsona horietako batek %33ko edo gehiagoko minusbaliotasuna izan behar du. Minusbaliotasuna bi pertsonak edo gehiagok badute ere, puntuak horietako batengatik bakarrik emango dira; beraz, gehienez, 2 puntu lortuko dira atal honetan, minusbaliotasuna haurrak berak badu, eta puntu bat, minusbaliotasuna aipatutako familiarreko batek badu.

Minusbaliotasuna egiaztatzeko, dagokion Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuek edo estatuko antzeko beste organo batek emandako ziurtagiria aurkeztu behar da. Minusbaliotasunaren aitortpen legala adierazi behar du ziurtagiri horrek eta minusbaliotasun-maila %33koa edo gehiagokoa dela jakinarazi.

- Aitak, amak edo legezko tutoreak, biak, lanean aritzea: 2 puntu.
- Guraso bakarreko familia bada, guraso bakarra lanean aritzea: 2 puntu
- Guraso bat lanean eta bestea langabezian egotea: 1 puntu.
- Bi gurasoak edo, guraso bakarreko familia bada, guraso bakar hori langabezian egotea: 1 puntu.
- P. M. Urruzuno kooperatibako bazkidea izatea: 1 puntu
- Elgoibar ikastolako ikasle ohia izatea: 1,5 puntu gurasoko

Berdinketa gertatuz gero

Aurreko ataletan lortutako puntuazio handiena hartuko da kontuan, atalak banan-banan alderatuta eta honako ordena honi jarraituz:

- a) Anaia-arrebak Elgoibar Ikastolan matrikulatuta egotea edo aitak, amak edo legezko tutoreak Elgoibar Ikastolan lan egitea aintzat hartzen duen atalean lortutako puntuaziorik handiena.
- b) Haurraren bizilekua edo amaren, aitaren edo legezko tutorearen lantokiaren kokalekua aintzat hartzen duen atalean lortutako puntuaziorik handiena.
- c) Haurren minusbaliotasuna edo amaren, aitaren edo legezko tutorearen minusbaliotasuna aintzat hartzen duen atalean lortutako puntuaziorik handiena.
- d) Familia ugaria izatea aintzat hartzen duen atalean lortutako puntuaziorik handiena.

Hala ere berdinketa suertatuz gero, zozketa publikoaren bidez hautsiko da. Zozketa ekainaren bukaeran egingo da ikastetxean bertan. Informazio hori ikastetxeko iragarki-taulan egongo da zintzilikatuta.

Maiatzeko izen-emate epea

- Eskariak aurkezteko eta onartze-epeetarako egutegia

 - a) Eskariak entregatzea: maiatzaren erdialdera.
 - b) Behin-behineko zerrendak argitaratzea: ekainaren erdialdera.
 - c) Behin-behineko zerrenden kontra erreklamazioak aurkeztea: ekainaren bukaeran.
 - d) Behin betiko zerrendak argitaratzea: uztailaren hasieran.

Iraileko izen-emate epea

- Eskariak aurkezteko eta onartze-epeetarako egutegia

 - a) Eskariak entregatzea: irailaren erdialdera.
 - b) Behin-behineko zerrendak argitaratzea: urriaren erdialdera.
 - c) Behin-behineko zerrenden kontra erreklamazio aurkeztea: urriaren bukaeran.
 - d) Behin betiko zerrendak argitaratzea: urriaren bukaeran.

Urtarrileko izen-emate epea

- Eskariak aurkezteko eta onartze-epeetarako egutegia

 - a) Eskariak entregatzea: urtarrilaren erdialdera.
 - b) Behin-behineko zerrendak argitaratzea: otsailaren erdialdera.
 - c) Behin-behineko zerrenden kontra erreklamazioak aurkeztea: otsailaren bukaeran.
 - d) Behin betiko zerrendak argitaratzea: otsailaren bukaeran.